



# ANOETAKO UDALA

## EDURKAKO MUSIKA LOKALEN ERABILERA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIA

### ARAU OROKORRAK

- Partaide anoetarrak dituzten taldeek izango dute lehentasuna.  
Beraz, une honetan dauden musika talde batzuk, partaide anoetarrak ez izan arren, jarraitzeko eskubidea izango dute, beti ere lokala behar ez den bitartean. Partaide anoetarrak dituzten talde berriek behar izanez gero, kanpoko taldeek utzi beharko dute lokala. Horretarako, udalak hilabete bat aurretik pasako die abisua.
- Talde batek lokala uzten badu, udalari idatziz jakinarazi beharko dio, eta giltzak udaletxean utzi.
- Musikaren mundua oso maskulinizatua izanik, eta emakumeen presentzia bultzatu nahian, lehentasuna izango dute partaide emakumeak dituzten taldeek.
- Lokal bakoitzak arduradun bat izango du, lokaleko kideek aukeratutakoa.
- Lau lokaletako arduradunek batzorde bat osatuko dute, lokalen martxa aztertzeko, musika talde berrien sarrera aztertzeko (zein lokaletan sartu taldeak etab.) eta sor litezkeen arazoak edo kezkek kudeatzeko.
- Urtean bitan udalak bilera egingo du lokaletako kide guztiekin, ekainean eta abenduan. Hala ere, presazko zerbait sortuz gero, edozein momentutan egin liteke bilera.
- Talde batek lokalaren eskaera egiten duenean, udaleko kultur dinamizatzaileak araudi honen berri emango dio eskatzaileari, eta eskaera sinatzeak baldintza hauek onartzea dakar. Hala ere, lokal bakoitzeko arduradunak ziurtatu behar du araudia betetzen dela, eta bestela arazoa konpontzen saiatu edota abisua pasa udalari.
- Udalak beti izango du lokal bakoitzeko giltza bana gutxienez.
- Lokalaren lagapena doakoa da, eta udalak hartuko ditu bere gain mantenimenduko gastu guztiak. Trukean, bertan entsaiatzen duten taldeek konpromezua hartzen dute herriko festetan edo urtean zehar kontzerturen bat antolatzeko.
- Udalak lokalak utzi besterik ez du egiten, eta ez du bere gain hartzen bertako materiala zaintzearen ardura.



# ANOETAKO UDALA

## ERABILERA ARAUAK

- Eraikineko instalazioei erabilera egokia emango zaie.
- Lokalak musika entseguak egiteko dira. Beraz, ezingo dira aisiarako eta lagunekin egoteko besterik gabe erabili.
- Lokal batean musika ez den beste jarduera bat egin nahi izanez gero, baimena eskatuko zaio udalari, eta honek gaia aztertuko du, beti ere lokal horren erabiltzaileen iritzia kontutan hartuz. Edozein kasutan, jarduera hori irabazi asmorik gabekoa izan beharko litzateke, eta proiektzio soziala duena. Eta behin-behineko izaerarekin, beti ere lehentasuna izango baitute musika taldeek.
- Musika talde batek gela erabiltzen ez badu, utzi beharko du, udalari idatziz jakinarazi ([tsoto@anoeta.eus](mailto:tsoto@anoeta.eus)), eta bere trasteak atera hilabeteko epean.
- Lokaletan estruktura aldaketak egin nahi izanez gero (entxufe berriak, edota alarma jarri, zarraila aldatu, etab.), udalari baimena eskatuko zaio.
- Lokal bakoitzaren barruko garbiketa erabiltzaileek hartuko dute bere gain. Lokal bakoitzeko arduradunak ziurtatu behar du txukunketa hori bere lokalean.
- Espazio komunak ere txukun mantendu behar dira. Beraz, noizbehinka lokaletako arduradunen batzordeak dei orokorra egin behar du garbiketa antolatzeko, Anoetako Gazte Asanbladarekin ere harremanetan jarritz.
- Entseguak amaitzean, entxufeak libre geldituko dira, hau da, erregeletak itzaliko dira, energia aurrezteko asmoz.
- Lokal bakoitzeko giltza taldeetako partaideek soilik izan ahalko dute, eta ezingo diete beste inori kopiarik eman.
- Argindarraren kontsumo arduratsua egingo dute erabiltzaileek, eta sortutako hondakinen kudeaketa modu egokian egin.